

Firin-faran

Udazkenerako aisialdi egitasmoa



TXIRBILLA

GALBIDEA

Aitzinsolasa	2
Testuinguru soziolinguistikoa	3
Ekimenaren helburuak	5
Programazioa	6
HH	6
SUKALDARITZA TAILERRA	6
MUGIMENDU TAILERRA	6
ESKULAN TAILERRA	7
LH	7
SUKALDARITZA TAILERRA	7
HERRI KIROLAK (kooperatiboak)	8
ESKULAN TAILERRA	8
Zehaztapenak	9
Izen-ematea	9
Egutegia	9

1. Aitzinsolasa

Enborretik ezpal berriak nola, iraganeko habe sendoen txirbilletatik abiatuta hasi zen 2021eko neguan proiektuaren eraikuntza. Hainbat eztabaida saioaren eta prozesu luze baten ondoren, Txirbilla aisialdi taldea jaio zen Lezon. Adin ugaritako gazteak gara sustatzaile, eta herriko aisialdi eskasak arduratuta ekin genion proiektuari. Jaio ostean, unean uneko ekimenak martxan jartzeari ekin diogu, bazterrean utzi gabe arnas luzeko begirada.

Aisialdi hezitzailea da Txirbillaren nortasuna, balioetan oinarritutako hezkidetzak, alegia. Horretarako, etorkizuneko gizarte berdinzalearen oinarriak jarri nahi ditugu. Ezinbesteko ardatz horiek, Txirbillaren helburu nagusiak, honakoak dira:

- **Euskara erdigunean.** Euskara sustatzeko eta hizkuntza ohituretan eragiteko helburu argia dugu. Euskara da Txirbillaren ohiko hizkuntza, baita haren ekimenetakoa ere. Aisialdian ere euskara prestigiatzeko eta integraziorako tresna bilakatzeko lan egingo dugu.
- **Belaunaldi artean lankidetzan.** Lezoko belaunaldien artean arrakalak topa daitezke, gehiago Lezok lotarako herri huts bihurtzeko bidea hartuz gero. Belaundaldien arteko harremanak bermatzeko, espazioak sortzea dugu xede, hala, herri nortasuna indartzeko.
- **Feminismotik hezkidetzara.** Parekidetasuna praktikan jarri nahi dugu, bai ekimenen antolaketako prozesuan, bai ekimenetan bertan. Aisialdiari eraldaketarako gaitasuna aitortuta, hezkidetzak gure inguruko eremuetara zabaltzea nahi dugu.
- **Tokiko kulturaren transmisioa.** Lezoko eta Euskal Herriko txokoak eta naturguneak ezagutaraziko ditugu. Kulturaren izaera transformatzaile dela eta, arreta berezia jarriko dugu kulturaren, euskalduntzeko bitarteko delako zein gizarte feminista irudikatzen.

Horrenbestez, Lezoko aisialdian topatutako hutsuneak osatzeko ekarpena egitea dugu helburu. Proposamen horiek, gainera, edukiz eta balioz bete ditugu, hezkidetzarako aisialdiaren norabidean jartzeko. Bidelagun izango zaituztegu erronka honetan.


2. Testuinguru soziolinguistikoa

Mendeetan nekazaritza eta itsasoa izan dira Lezoko ekonomiaren zutabeak. Bitarte horretan, herriak populazio hazkunde naturala izan zuen, gerrateek edo itsasontzien hondoratzeek eragin zitzaketen gorabeheretz aparte. XIX. mendearen bigarren erdian, industria iraultzaren eraginak nabaritzen hasi ziren Lezon, eta, hala, 1900 urte inguruan, arrantzatik bizi ziren lezoarrak oso urri zirenez, nekazaritza eta industria bilakatu ziren bertakoen bizibide.

1900. urteko 1198 biztanleetatik, egungo 6103 biztanleetara igaro gara. Hazkunderik handiena eta azkarrena, ordea, 70eko hamarkada hasieran gertatu zen, garai hartan etorri baitzen etorkin multzo handiena, biztanleen ia erdia, hain zuzen ere.

Horrek, zalantzarik gabe, herriaren egoera soziolinguistikoa erabat inarrosi zuen. Ordura arte etorritako etorkin urriak erraz bertakotzen ziren euskara ikasita, baina 70eko hamarkadako uholdeaa ezin izan zuen eutsi Lezok, eta erdara bihurtu zen kaleko hizkuntza nagusi.

Francoren diktaduraren ondotik, eta ikastola eta gau eskolei esker, euskara berreskuratzeko indarra eta gogoia zabaltzen hasi ziren herrian. Egun, oraindik, prozesu horretan buru-belarri murgilduta dihardugu. Hona hemen Lezoko euskararen erabileraren egoera soziolinguistikoa.




Hizkuntza	2008	2012	2016	2019
Euskaraz	% 37,8	% 41,8	% 36,5	% 32,6
Gaztelaniaz	% 62,2	% 57,8	% 63,0	% 66,6

1990etik 2008ra erabilerak ez du gorabehera handirik izan, hemezortzi urtetan hiru puntuko igoera besterik ez baitzuen izan; 1990ean erabilera %35ekoa zen, eta 2008an %38koa. Tartean, 1994an erabilera %27ra jaitsi zen, 2008ko datuarekin alderatuz gero, hamalau urtetan erabilera hamaika puntu igo da. 2012an jo zuen gaina, euskarak % 41,8ko erabilera izanik. Gero, ordea, beheranzko joera hartu du, eta 1995. urteko erabilera izan zuen 2019an.

Haurren presentziaren arabera datuak adierazgarriak dira zeharo. Nahita edo konturatu gabe, baina datuek erakusten dute guraso askok haurrak ondoan dituztenean euskaraz gehiago egiten dutela urrutiratzen direnean baino.

9.2 HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. BILAKAERA. LEZO 2000-2019

14. Grafikoa: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. Bilakaera. Lezo, 2000-2019



Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2000-2019. Soziolinguistika Klusterra.

14. Taula: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. Lezo, 2000-2019

	2000	2002	2004	2008	2010	2012	2014	2016	2019
Haurrez osatutako taldeetan	35,1	60,3	57,1	23,6	55,1	52,2	47,4	22,3	34,1
Haurrik gabeko taldeetan	22,1	24,5	22,4	21,2	26,4	32,5	23,3	27,2	20,8
Haur eta beste adin-taldekoekin osatutako taldeetan	51,0	56,6	48,1	57,2	48,3	57,0	55,5	52,1	54,4

Iturria. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Lezo 2000-2019. Soziolinguistika Klusterra.

Honela idatzi zuen Lezo eta Irungo udal idazkariak 1814an: «idioma que común y ordinariamente se usa en ambos pueblos es el natibo y bulgar bascongado, que (...) lo (...)

adquiere de sus padres, por ser la primera y única lengua que generalmente se usa y aprende desde la infancia».

Esan bezala, herri euskalduna, beraz, orain dela oso gutxi arte. 1960-70 bitartean irauli zen Lezoko egoera soziolinguistikoa emigrazioa, frankismoaren zapalkuntza... direla eta. Hogei urtetan erabat euskaldun izatetik ia erdaldun izatera pasa zen Lezo.

Gaur egun, berriz, ilusio handiz eta ekimen sendoz Lezo berriro euskaldun izateko bidean lanean ari gara. Aisialdian ere, herri honek euskaraz bizi nahi du.

3. Ekimenaren helburuak

Ekimenaren bitartez, Txirbillaren helburu nagusietako hiru jorratu nahi ditugu herriko haurrekin. Zehazki, **Euskara erdigunean**, **Tokiko kulturaren transmisioa**, eta **Feminismotik hezkidetzara** helburuak jorratu nahi ditugu jolas hauen bitartez.

Euskararen sustapena ardatz hartzeko arrazoi nagusia azken urteetako euskararen geldiene egoera da. Azken urteetan ez aurrera ez atzera dabil erabilera, eta ezagutzen aurrerapen handirik ezin denez egin, erabileran jarri behar da indarra. Haurren taldeak berezitasun ugari ditu, eta guraso-haur arteko elkarrekintzak elkarriketen hizkuntza ohiturak baldintzatzen dituzenez, horietan ere arreta jarri behar da. Udazkeneko ekimen honen bitartez, gurasoak eta haurrak bilduko ditugunez, elkarrekintza horietan eragin nahi dugu.

Bestalde, tokiko kulturaren transmisioa egiten ere saiatuko gara. Horretarako, herriko abestiak, dantzak eta abarrak hurrei erakusteko saiakera egingo dugu, eta etxean horien lanketa egiteko euskarriak prestatu.

Amaitzeko, helduenekin hezkidetzaren baitako baloreak jorratuko ditugu, emakumeen eta gizonen arteko lanbide edo lan banaketaren inguruko aurreiritziak gainditzeko.

Programazioan helburu horiek lantzeko mekanismoak gehitu ditugu, jolas bakoitzaren amaieran, egun bakoitzean arreta berezia zein helburutan jarriko den jakiteko. Gainerako Txirbillaren helburuak, zeharlerro eran landuko ditugu.

4. Programazioa

→ HH

SUKALDARITZA TAILERRA

1. Elikagaiak ezagutzen:
 - Ogi motak
 - Gazta motak
 - Tomateak
 - Mermeladak
 - Platano, sagarra, mandarinak
 - Atuna
 - Maonesa
 - Azenarioa
 - Fruitu lehorrak
 - Azeitunak
2. Dastamen proba: gazia, gozoa (nozilla), garratza (limoia), mingotsa
3. Pintxo lehiaketa: guraso eta haurren artean. Erakusketa + bakoitzak berea jan

Helburuak:	
Euskara erdigunean	Txarteltxoak sortuko ditugu gurasoek oinarrizko hiztegia barnera dezaten, eta, hala, guraso-haur elkarreraginean euskaraz jarduteko.

MUGIMENDU TAILERRA

1. Luzaketak eta beroketa
2. Dantzak
3. Erlaxazioa



Helburuak:	
Tokiko kulturaren transmisioa	Euskal Herriko dantzaren bat ikasiko da, euskarazko abestiez lagunduta. Horrez gain, hizkuntza errutinak finkatzen saiatuko gara.

ESKULAN TAILERRA

1. Mural bat haur eta gurasoek margotzeko, gero San Tomaseko azokan jartzeko
2. Gabonetako zuhaitzean zintzilikatzeko komuneko tutua apaindu
3. Gabonetako zuhaitza
4. Olentzero / Mari Domingi/ Astoa inprimatuak

*** Hostoak eta makilak bildu

Helburuak:	
Tokiko kulturaren transmisioa	Gabonak gure iruditegiarekin lotzea: Olentzero, Maridomingi, txondorra...

→ **LH**

SUKALDARITZA TAILERRA

1. Dastamen + usaimen proba: mota bakoitzetik elikagai bat baino gehiago
2. Pintxoa sortzen: binaka hiru pintxo egin beharko dituzte. Ondoren, erakusketa eta dastaketa

Helburuak:	
Feminismotik hezkidetzara	Lehenago, hausnarketa tailerra: gizonezko eta emakumezko sukaldarien argazkiak inprimatu + nork sukaldatzen duen etxean.

HERRI KIROLAK (kooperatiboak)

1. Lokotxak: sugean, lokotx bakoitzeko ordena aldatu
2. Txingak: binaka
3. Zaku lasterketa (zaku handiak posible bada)
4. Kontrabandista begi itxiekin
5. Sokatira

Helburuak:	
Tokiko kulturaren transmisioa	Euskal Herriko kirolak ezagutzen. Paretetan inprimatuta jarri gizon eta emakume herri kirolarien argazkiak, jakin dezaten existitzen direla.

ESKULAN TAILERRA

1. Murala, HHkoen antzekoa
2. Gabonetako zuhaitzean zintzilikatzeko tutuak
3. Postalak
4. Zuhaitza
5. Argazki markoa

Helburuak:	
Tokiko kulturaren transmisioa	Gabonak gure iruditegiarekin lotzea: Olentzero, Maridomingi, txondorra...

5. Zehaztapenak

Izen-ematea

Izen ematea urriaren 27tik 29ra egingo da, www.txirbilla.eus atarian.

- Haur Hezkuntza (2018an, 2017an, 2016an jaiotakoak) → gurasoen partehartze aktiboa derrigorrezkoa izango da.
- Lehen Hezkuntza (2015ean, 2014an, 2013an, 2012an, 2011n, 2010ean jaiotakoak)
- Talde bakoitzean, 20 gazte onartuko dira, bi hezitzailek lagunduta
- Talde bakoitzean (LHn eta HHn) 20 gazte baino gehiagok emango balute izena, zozketa bidez erabakiko dira parte-hartzaileak

Harremanetarako, honako posta elektronikoa erabil dezakezue: txirbilla@txirbilla.eus

Egutegia

Ekimenak azaroan eta abenduan zehar egingo dira, txandaka. Adin tarteen arabera bereiziko dira saioak, eta amaieran, txokolatada bateratua izango da.

AZAROA					
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
HH	1	2	3	4	5
LH	8	9	10	11	12
	15	16	17	18	19
Bateratua	22	23	24	25	26

ABENDUA					
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
			1	2	3
6		7	8	9	10
13		14	15	16	17
20		21	22	23	24
27		28	29	30	31

Haizea dabil
firin-faran
zuhaitzak oker
hostoak hegan
ateak kriskiti
ateak kraskata
kristalak klink
kristalak klank
haizea eta haizea
udazkenean

